

‘Benedí’, El Correo egunkariko lehen infografiagilea

(‘Benedí’, the first infographer at ‘El Correo’ newspaper)

García González, Daniel

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV / EHU). Dpto. Periodismo II.

Posta Kutxatila 644. 48080 Bilbo

daniel.garcia@ehu.es

Jaso: 2013.06.30

BIBLID [1137-4462, eISSN 1988-3935 (2013), 14; 5-40] Onartu: 2014.01.20

1939ko irailean infografiagile finko batek bere eguneroko grafikoa sinatzen hasi zen lehenengo aldiz ‘El Correo Español-El Pueblo Vasco’ egunkari bilbotarraren orrialdeetan. ‘Benedí’ izenpean, Bigarren Mundu Gerran zehar, 1944ren hasiera arte, eztanda infografikoa ekarri zuen ilustratzaile honek ‘El Correo’-ra, inoiz baino grafiko gehiago publikatuko baizuen aldizkariak. Lau urte eta erdi horietan zehar argitaratutako infografiko horien eboluzioa analizatuko ditugu kapitulu honetan.

Giltza-Hitzak: Infografikoak. Infografía. El Correo. Benedí. Infografiagilea. Kazetaritza. Mapa.

En septiembre de 1939 un infógrafo comenzó a firmar sus gráficas por primera vez en las páginas del diario bilbaíno ‘El Correo Español-El Pueblo Vasco’. Con el seudónimo de ‘Benedí’, durante la Segunda Guerra Mundial, hasta comienzos de 1944, el ilustrador fue el responsable de una auténtica explosión infográfica en ‘El Correo’, ya que el diario publicó más gráficas que nunca. En este capítulo analizamos la evolución de las infografías publicadas en esos cuatro años y medio.

Palabras Clave: Infografías. Infografía. El Correo. Benedí. Infógrafo. Periodismo. Mapa.

En septembre 1939, un infographiste commence à signer ses graphies dans le quotidien de Bilbao “ El Correo Español-El Pueblo Vasco ” sous le pseudonyme de “ Benedí “. Pendant la Seconde Guerre Mondiale et jusqu’au début 1944, cet illustrateur est le responsable d’une véritable explosion infographique dans El Correo, qui publie un grand nombre de graphies. Nous analysons, dans ce chapitre, l’évolution des infographies publiées durant cette période de quatre ans et demi.

Mots-Clés : Infographies. Infographie. El Correo. Benedí. Infographiste. Journalisme. Carte.

SARRERA

'Infografikoa' Estatu Batuetatik datorkigun hitza dugu, non 'information graphics' deitzen baitute bir-jaiotako genero honi, eta nondik –José Manuel de Pablos katedradunak adierazten duenez– 'infographics' datorren [De PABLOS, 1999; 12]. Eta, azkenik, hortik gure 'infografía' eta bere produktuak; 'infografikoak'. Valero Sanchoen definizioari jarraituz, infografikoa "aportazio informatiboa da egunkari idatzi batean, elementu ikonikoak eta tipografikoak erabiliz, gertakariak, ekintzak edota gaurkotasuneko informazioak –edota beraien aspekturik garrantzitsuenetarikoa– ulertarazteko zein ulermen hori errazteko, eta testu informatiboarekin batera publikatzen da, hala nola batzutan testua bera sustituitu ere" [VALERO SANCHO, 2000; 2]

Alberto Cairoren ustetan, infografikoa ez du zertan elementu tipografikorik derrigorrez eraman behar [CAIRO 2008; 21]. Berak aportatzen duen definizio zehatzagoan beste aspektu batean sakontzen da; diagramatismoan. Bere definizio argi eta motzean, 'infografikoa' "datuen errepresentazio diagramatikoa da", eta jarraian gehitzen duen bezala "Diagrama formapean erakutsitako edozein informazioa infografía dugu". Hori izango da bere definizioaren ardatz nagusia; 'diagrama', eta berau bezala ulertzen duena: "konjunto edo sistema baten zati ezberdinen arteko erlazioak erakusten diren marrazkia".


Peggie Stark-en hitzetan [1991; 2] kazetaritza infografikoak "...artikuluaren kontatzen diren gertakizunak azaltzeko, baita istorioa edota bere protagonistak testuinguru zehatz batean kokatzeko hitzak eta elementu bisualen konbinaketa dira...". Eta Abreu Sojok [2000, 16] gogoratzen duen bezala, gertatutakoaren 'bost W'-ei erantzun beharko lioke infografiak, eta Leturiak gehitzen duen bezala, infografiko batetatik informazio nahiko atera ahal daiteke berria idazteko ere [LETURIA; 1998, 2]. Jordi Clapersek, 'El País' egunkariko infografistak honela definitzen zuen infografikoa: "Notizia edota informazio (gertaera, ekintza edota kazetaritza gai) baten errepresentazio bisual eta sekuentziala". Eta Peter Sullivanentzat [1987; 41] informazio grafikoaren erarik sinpleena litzateke argazki batena gehi ikur, gurutze edo gezi bat –bertan zerbait indikatu edo indibiduatzeko–. Hala ere historiako lehen mapa eta lehen 'infografikoa' ezberdintzen ditu.

Egile askok prentsako infografikoen agerpena 'teknologia berri'-ekin lotzen duten arren, infografiak, krokisak, mapak eta datu taulak egunkariaren agerpenetik bertatik aurkitzen ditugu. 1740ko martxoaren 29an Londreseko 'Daily Post' egunkariak mapa bat publikatu zuen esplikatzeko Vernon almirantearen eraso Portobello hiriaren kontra. Peter Sullivanentzat [1987; 15] hau izan zen lehenengo mapa prentsaren historian. Ezaguna da ere nola 1806ko apirilaren 7an Londreseko 'The Times' aldizkariak bere azalorrian infografiko bat argitaratu zuen esplikatzeko gertatutako erailketa bat Tamesis ibaia ondoan. Bertan, hiltzaileak –Richard Patch– jarraitutako ibilbide posiblea eta hildako pertsonaren –Isaac Blighen– etxean nola sartu eta atera omen zen zehazten zen. Sullivanek egunkariaren historian lehen infografikoa deritzo honi.

'El Correo Español - El Pueblo Vasco' egunkari bizkaitarraren historia osoan zehar ere infografiko anitz aurkituko dugu bere sortzetik bertatik –1910 urtetik

aurrera-. Euskadi osoan ez ezik, Espainiako iparraldeko egunkari garrantzitsuenetarikoa dugu, eta, egun, Bizkaian bizirik dirauen bakarra, hain zuzen. Eta bere ibilbide infografiko horretan Lehenengo Mundu Gudak eragin garbia izan zuen. 1914tik 1918ra arte argitaratutako mapak eta adierazpen grafikoak bultzakada handia eman baizioten mota honetako irudiei, ondorengo grafikoan ikusi daitekeenez.

1. Irudia. Publikatutako infografikoen eboluzioa



'El Correo Español-El Pueblo Vasco'-k hilabetero informazioko artikuluetan argitaratutako infografikoen kopuru ertaina bere lehenengo 20 urteetan. (Egileak berak burututa. 2013)

XX. mendeko lehen hamarkadetan zehar argazkiak eta ilustrazioak nagusi izango diren arren, egunkari bilbotarraren orrialdeetan zenbait infografiko – mapak batez ere– ere agertuko zaizkigu. Gehienetan sinatu barik, proto infografiko guzti hauek estilo irregular eta oso ezberdinekoak izango dira. Egun batetik bestera argitaratutako azalpen grafiko, krokis edota datu taula hauek pertsona ezberdinek marraztuta izango dira –askotan erredaktoreak berak, hain zuzen– eta bakarrik ilustrazioetan aurkituko ditugu argi egilearen izenak. Baina 1939an hau aldatuko da eta lehenengo aldiz, infografiagile finko bezala arituko den lehen ilustratzailea agertuko da egunkari honen orrialdeetan.

1. IKERGAJDERAK

Aurretik inolako tradizio infografiko finkorik gabe, nolakoa izan zen bakarrik lan egin zuen egile honen eboluzioa? 'Benedi'-ren aurretik ez zaigu agertuko egunkari honetan beste ilustratzaile finkorik marrazkiak argitaratzen. Bere eboluzioa erabat naturala eta norberarena izango dugu eta beste edozein komunikatzaile grafikok esperimentatu lezakeena bezalakoa.

Goian aipatu dugunez, Lehen Mundu Gudak infografikoen agerpena bultzatu zuen egunkari bilbotar honetan. Eta gaur egun, egile askok infografia modernuaren eztanda eta infografikoen ekoizpenaren multiplikazioa 1991an Golkoko gudan zehar [GARCÍA, Mario. 1998; 1] gertatutako informazio eta argazki faltari egozten diote [SERRA, Josep María. 1998; 5]. Garrantzi handiko halako gertakari baten aurrean egunkariek orrialde anitz bete beharizanaren aurrean, eta argazki gutxi aurkitzen zutenez, errekurtsio berri honi ateak ireki zizkioten. Zentzu honetan Sancho Valerok ohartarazten duenez [2002; 6], "... batzutan infografiko gehiegiren agertzeak susmagarria suertatu daiteke ere, gertakizunen edo ekintza esanguratsuaren tokian argazki falta ere esan nahi baitezake...". Raymond Collek irakasle txiletarrak ere honela adierazten du; Txileko komunikabide inprimatuen infografikoen hedatzea 1991an gertatu zela, gudan zehar. Berak 'eztanda grafikoak' gertatu zela aipatzen du. Prentsa agentziak horren ostean zerbitzu infografikoen eskaintza finkoa ezartzen hasi ziren eta honela, gudan zehar zabaldu ziren mapak eta 'karto-infografiko'-ez gain, beste osagaiez burututako infografikoak agertu eta zabaltzen hasi ziren. "...Gero, pixkanaka pixkanaka ekoizpen nazionalekoak finduz joan ziren eta eredu eta estilu propioak oinarritzen joan ziren...".

Guzti hori kontutan hartuz, kontsideratu daiteke halako zerbaite ere gertatu zela Bigarren Mundu Gudaren zehar ere?

Eta 'Benedí'-ren ekarpen horiek nola eragin zuten ondorengo egileengan? Ilustratzaile honek betetako fase horren ostean aldatu al zuen egunkariak infografikoekiko ikuspegi edota, kuantitatiboki, argitaratutako grafiko kopurua?

2. METODOA

'El Correo'-ren infografiaren inguruko ikerketa sakonago baten testuinguruan sortu zitzaizkigun galdera hauek, Bigarren Mundu Gerraren epean lehenengo aldiz infografiagile batek finkotasunez bere lanak sinatzen hasi zela ohartzean.

Egunkari honek gaur egun Bilboko bere egoitzetan mantentzen duen heme-roteka fisikoari esker urte horietako aleak banan banan begiratu ahal izan dira paperezko bertsioetan.

Lan hemerografikoak ikuspegi sinkroniko batetatik eraman da aurrera. Argitaratutako zati hauen eboluzio kuantitatiboarekin batera –tamainak, gaiak edota aurrerapausu teknikoekin batera– aipatu egilearen eboluzio kontzeptuala ere analizatu ahal izateko, grafikoetan erabiltzen diren piktogramak, lerroak, kolo-reak etabar ere balio adierazgarria edo sinbolikoa baliotsua ere iruditu baizaigu.

Infografikoak eta ilustrazioak ezberdintzerakoan Barnhurst [1999; 7] eta De Pablosen [1999; 17] irizpidea jarraituko dugu, doktrinaren gehiengoarena ondo laburtzen baitute bien funtzio ezberdinak definitzean. Lehenengoak informatzea baitu helburu, bigarrenak dotoretze funtzio edota alegorikoa, ordea.

3. GARAPENA

3.1. Estilu definiturik gabeko unea

1939ko irailak 12an 'Benedí' infografiagileak bere lehen grafikoa sinatuko du eta hortik aurrera infografiagile finko bezala agertuko da egunero. Aurretik 'Manresa' ilustratzailearen zenbait lan esporadiko argitaratu bazuen –baita 'Salinas' marrazkilaria izena agertzen den ere–; egunkariko lehen infografiagile osoa 'Benedí' sinadurapean agertuko zaigu. Egile honek Alemaniak Poloniarri egindako inbasioaren inguruko mapak egiten hasi zen egunkarian eta jarraian Finlandiako inbasioa Errusiarengatik zein Bigarren Munduko Guda ere ilustratu egin zuen infografikoekin. Hauxe dugu lehen langile egunkarian baka-rrik infografikoetara dedikatua oso osorik. Bere sinadura agertu arte ia ez ziren grafikorik publikatzen 'El Correo Español'-en. Azken adibideak honako hauek ditugu; mapatxo sinpleak eta marra biluzik osatuak. Errekurtsu infografikorik ia ez zen aprobeztatzen.

2. Irudia. Bigarren Mundu Gerraren hasieran publikatutako mapak



Egunkari bilbotarrak 'Benedí' kontratatu baino lehen publikatzen zituen krokisak. (1939ko irailaren 10a eta 1939ko irailaren 6an)

Europako zonaldeko mapak ditugu hauek. Herrialdeen arteko mugak, errepideak eta ibaiak konfunditu egiten dira. Errotuluak ezin txikiagoak ere badira eta ez dirudite prestatuak izanda publikatuak izan ziren tamaina txiki horretara.

3.2. 'Benedí'-ren lehenengo lanak

1939ko irailak 12an sinadura berri hau agertzen zaigu lehenengo aldiz. la grafikorik ez agertzetik, bapatean lau mapa jarraian aurkitzen ditugu (12tik 15era) Europako herrialdeen mugak eta 'Maginot' marraren tirabirak Frantzian Nazien presioaren kontra. Azpimarratzekoa da nola lehenengo momentutik infografiagile honek lauki batez nabarmenduko duen bere marrazkiak. Orrialdearen gainontzeko elementuetatik ezberdintzeko, errekuadro beltzak markatuko du ia beti bere lana. Eraberean, logotipoak eta tramak erabiltzeko asmoa agertarazten du ere lehenengo grafiko hauetatik. Baina elementurik azpimarragarriena zonalde 'beltza' indartsuen presentzia izango da.

3. Irudia. 'Benedí'-ren lehen mapa



Sinadura oraindik gutxi garatua somatzen da behealdean. (1939ko irailaren 12an)

Gogor markatutako lerro eta area horiek mezuaren gakoa transmititu nahi dutela. Lehenengo aldiz 'margotzailea'-k berriaren mamia irakurri eta horren arabera bere mapa prestatua zuela demostratuko da. Mapek 'mezua' badaramatela argi uzten dute.

4. Irudia. Bere mapen lehen ezaugarri garbiak




Testuingurua alde batetik (tinta gutxirekin) eta mezu informatiboa bestetik (bigarren hau markatuagoa) nabaritzen hasten da bere lehen lanetatik. (1939ko irailaren 14an)

Lehenengo mapa hauetatik jadanik ezaugarri nagusi horiek somatzen ditugu jada:

1. Mezu nagusia beltz indartsuez azpimarratua ('Maginot' defentsa marra adibide honetan)
2. Ura eta lurraren arteko ezberdintzapen argia eta tinta gehiegirik erabili gabe.
3. Apaindurako elementurik ez.

Bapatean, lehen infografiagile finko honen agerpenarekin, egunkarian ia mapa eta grafikorik ez agertzetik pasatuko gara ekoizpen oso handi batera. Egunero grafiko bat –eta batzutan bizpahiru ere– publikatzen hasiko da. Ekoizpen izugarria garai hartako. Bere agerpen guzti-tietan 'Benendí'-k sinadura bakarra erabiliko du, eta erredaktoreek beraiek ere margolariaren lanaren inguruan aipatzerakoan izengoiti hori erabiliko dute.


5. irudia. Publikatutako infografikoen eboluzioa



'El Correo Español - El Pueblo Vasco'-k hilabetero informazioko artikuluetan argitaratutako infografikoen kopuru ertaina 1930tik 1949ra. (*Egileak berak burututa*. 2013)

Lehenengo bost egun horietan azken orrialdean agertu eta gero, seigarrenean bere lanaren garrantziaz ohartarazita, erredaktoreak 'Benedí'-ren lana azalorrira pasatuko dute. Honela 1939ko irailak 16tik aurrera gudaren inguruko mapak lehen orrialdean publikatuko dira. Egun horretan agertzen bazaigu bere sinadura berezia lehenengo aldiz azalorrian. Eta hortxe geratuko zen hurrengo lau urtetan zehar. Hasieran gainontzeko argazkiekin batera, eta hilabeteak aurrera joan ahala, ia elementu grafiko bakarra bezala. Har dezagun kontutan nola testu gehienak sinatu gabe agertzen ziren –erredaktorearen hiria edo lekua baino ez zen esplizitatzen–, beraz, marrazkigilearen izena agertzea garrantzi handikoa da.

6. irudia. Grafikoen kokapena 1939an zehar



'El Correo Español - El Pueblo Vasco'-k hilabetero informazioko artikuluetan argitaratutako infografikoen kopuru ertaina 1939an zehar. (*Egileak berak burututa*. 2013)


7. irudia. Azalorrian lehenengo aldiz



Lau egunez azken orrialdean agertu eta gero, 'Benedí'-ren eguneroko infografikoa lana azalorrira pasatzen da lehenengo aldiz. Hemendik aurrera kokapen horretan mantenduko zen gehienetan. (1939ko irailaren 16a)

Eraberean, 'Correo Español-Pueblo Vasco' errutuluarekin batera, arra-noaren irudia agertzen zen erronbo baten barruan. Halakorik ez zen argitaratu 1939 arte eta Benedíren agerpenarekin batera koinziditu egiten du. Urtebetez agertzen jarraitu zen. 1940 urtearen bukaeratik aurrera pixkanaka desagertuz dihoa eta 1941tik aurrera ia ez zen berriro erabili.

8. irudia. Grafikoen ezkutua




(1939ko irailaren 19an)

1,2 x 1,0 zentimetroko irudi hau bakarrik infografikoetan erabili zen. Ez argazkiez ezta inolako testu zutabeetan. Nahiz eta askotan eskuz marraztua izanda, gehienetan kautxozko zigilu fisikoa ere bazela ematen du. Mapa oso txikia zenean, formatu borobilean eta txikiagoan publikatu zen sigilutxo hau ere.

Infografiagile honen bilakaera oso azkarra eta harrigarria izango da. Argi nabaritzen da nola lehenengo momentutik bere mapak finkatu egiten diren eta ia ezer ez argitaratetik, bapatean egunero mapa bat, bi eta batzutan gehiago ere egiten dira erregularki. Gehienak azalorrian eta batzutan, azken orrialdean beste batzuk.

Hasiera hasieratik bere lan informatiboaren garrantziaz jabetzen da eta 'Benedí' eta horregatik ez du nahasiko marrazkigile bezala bere trebetasunak informazio grafikoetan. Ejerzitoen aurrerakadak adierazteko geziak eta zenbait errotulu baino ez ditu erabiltzen. Nabarmentzekoa da, beraz, nola esfortzurik handiena maparen argitasunean inbertitzen duen. Informatzean, hain zuzen, eta ez infografikoa apaindu edo dotoretzean. Hau argi ikusiko dugu hurrengo urteetan karikaturak eta ilustrazioak –oso gutxitan agertuko direnak– bere esku ere eginda, ez direla uztartzen bere lan informatiboarekin. Beraz, argi uzten digu bere trebetasunak oso altuak zirela marrazkigile bezala, eta hala nahi izanez gero, soldaduak, itsasontziak, etab. marrazteko gai bazela, beraz, elementu hauek ez sartzeko aukera hartua zuen berak konszienteki hala nahi izanda.

9. irudia. Bere lehen mapa estatistikoa



Situación de Rusia y las posesiones inglesas de Asia.


(1939ko irailaren 28an)

Mapa honek alde batetik Errusia eta bestetik Ingalaterrako koloniak Asian erakusten ditu kolore ezberdin banarekin. Erabilitako bi tonu hoiien leienda espezifikatzen da behean. Bere lehen hilabete honetan ere aurkitzen ditugu jadanik, tramak, grisak, area beltzak eta marrez bitarteko zonaldeak indikatutako informazioak. Mapak 'hitz egiten' hasten zaizkigu lehenengo aldiz erregularki 'El Correo Español'-en.

3.3. Mapak nagusi

Bigarren Mundu Gerraren aroan gaudelarik, gatazkaren inguruko aktualitatea irudirik gabe ilustratzeko erarik errazena informazioa geografikoki kokatzea zen. Urte hauetan zehar mapen erabilera multiplikatzen da.

10. irudia. Informazio geografikoa nagusi



(1939ko irailaren 20 eta 21an)

Bi egun jarraian egindako mapa hauek esku bereak marratzuta izan arren, bakoitzean estilo eta errekurtsio grafikoak erabat ezberdinak dira. Gezien erabilera batean eta hiru binetetatko zatiketa bestean. Erabilitako letra tamainen arteko oreka eta, batez ere, kolore beltzaren funtzioa; ezkerrekoan geziak eta herrialdeen izenak azpimarratzeko, eskuinekoan, ordea, hiru binetak direla eta ondorioz, mapa bakarra baino, prozesu bat dela adierazteko. Guzti hau, egunkarian lanean hasi eta hilabete bakarrik pasatu baino lehen.

Irailak 30an beste hito bat gertatzen da Benedíren ibilbide profesionalan eta *El Correo*-ren infografian; orrialde berean bi mapa ezberdin publikatu eta sinatu egingo ditu infografiagile honek. Mapa bakoitza gai eta testu batekin eta itxura grafiko ezberdin batekin. Argazkirik ez egun hartako azalorrian eta, hiru astetan gure marrazkigilearen lana erabat finkatu dela argi geratzen da. Pentsatu behar dugu 1939ko egunkariak bizpahiru argazki baino ez zituela argitaratzen egunero. Itxura gris hartan mapa hauen presentziak asko destakutzen zuen.

11. irudia. Bi grafiko orrialde berean



(1939ko irailaren 30ean)

Hurrengo hilabetean zehar geziak eta adierazpen esplizituak multiplikatuko dira. Egilearen hitzak eta lan informatiboa agerikoagoa bihurtzen da. Infografiakoen kopurua handituz dihoan ehinean askatasun handiagoz ere sentitzen da indikazio kartografikoetatik aparte egindako kazetaritza-azalpen gero eta gehiago sartzeko.

12. irudia. Gezien erabilera



(1939ko urriaren 5, 6 eta 7an)

Argi eta garbi nabaritzen da egunkariaren eguneroko lanean erabat finkatu egin direla Benedíren mapak. Honela, urriak 18an irakurtzen dugu nola erre-daktoreak bere testuan, mapari buruz hitz egitean "...gure grafikoa..." deitzen du. Maparen behetik zein batzutan alboan ere agertzen ziren testuak bere mamia esplikatzeko zuten. Eta testu horren beharra desagertzen dihoa ere erre-daktoreak konturatzen direnean mapak berak 'hitz egiten' duela.

Guzti honen adibide argia dugu 1939ko urriak 19an argitaratutako Britaina handiko mapa. Orrialde honek balio digu Benedí infografiagilearen agerpenak suposatu zituen lehenengo aldaketak laburbiltzeko:

13. irudia. Zortzi ezaugarri berriak



(1939ko urriaren 19an)

1. Infografikoaren presentzia zabala; orrialdearen elementu grafiko bakarra eta tamaina handikoa.
2. Lauki beltza infografikoa gainontzeko elementuetatik bereizteko
3. Tramen erabilera lurra eta ura ezberdintzeko
4. Errotulu kartografikoak ez ezik; erredaktutako informazio testu osoak datuak azalarazten, baina titulurik eza.
5. Ikono edota apaintze hutseko elementurik eza. Geziak eta zenbait lauki baino ez.
6. Sinadura garbiki ezberdinduta.
7. Egunkariaren ezkutua argiki marraztuta.
8. Argazki oinik eza. Azkenik infografikoa independizatu egiten da eta 'berez' esplikatzeko onartzen da. Zenbait infografiko argazki oinarekin publikatzen jarraitu baziren ere, beste asko autoesplikatioak ziren eta azkenez kanpoko testu-elementu hori gabe publikatuko dira. Honen adibideak ditugu hurrengo hauek.

Azpimarratzekoa da ere nola 1939-1944 aldi horretan infografikoen kopurua oso altua izan arren, Benedírena baino beste sinadurarik ez zen agertu. Hau da, mapen ekoizpena multiplikatu egingo da, baina pertsona bakar honen lanagatik, beste inolako marrazkilariren laguntzarik gabe.

14. irudia. Sinadura bakarra




(1939ko urriaren 18, 26, 27 eta azaroaren 2 eta 3an)

1939ko urriak 31an Alemaniako ejerzitoaren presioa Frantziaren mugaren gainean eta 'Sigfrido' marraren kokapena azaltzeko lehenengo aldiz perspektibako mapa bat prestatu zuen Benedík. Berrito, mapak egiteko irizpide informatiboekin –bakarrik marrak, geziak eta zenbait ikono sinple, dekorazio hutsik gabe– eta oso lan txukuna eta ondo gorpuztua dugu. Agian erredakzioan gustokoa izan zutelako, hurrengo egunean berriro ere publikatua izango zen.

3.4. Dibertsifikazioa

Mapaz aparte, oso infografiko gutxi aurkitzen ditugu beste motatakoak. Beste mota hauen adibide exkas hoiere artean bi hauek aurkitzen dugu Benedíren lehen bi hilabetetan eginda.

15. irudia. Bestelako infografikoak




(1939ko azaroaren 4 eta 17an)

Benedíren grafikoek ekoizpena nagusiki nazioarteko informazioetarako izan zen. Ia esklusiboki informazio hauek ilustratzeko mapak egin zituen, hala ere zenbait estatistika grafiko ere burutu zituen.

Abenduak 10ean urpeko bonbak instalatzeko prozedura esplikatzeko bere lehen diagrafian. Mina batek nola funtzionatzen duen eta itsaspekoak nola instalatzen dituen era ezin argiagoan marraztu zuen. Grafikoa hiru ataletan zatitua dago eta ezin argiagoa da:

16. irudia. Diagrama informatiboa



Zonalde nagusian: minaren barneko zatiak eta funtzionamendua. Behekaldean: itsaspekotik ateratzeko prozedura. Eskuinaldean: itsas lurtean nora finkatzen direneko faseak. (1939ko abenduaren 10ean)

Hurrengo egunean Gerrako mapa prestatzean beste berrikuntza bat ere agertzen zaigu. Kasu honetan 'zoom'-en erabilera. Arreta deitezkoa da nola gorri kolorea dedikatu dion handitutako laukiaren eremuaren indikazioa. Agian errekurtsio grafikoa berriegitza jotzeagatik esku bat marraztu indikazio hori esplizitua bihurtzeko. Infografiko honetan bost elementu erabat ezberdin kolortu ditu.

17. irudia. 'Zoom'-en erabileraren adibidea




(1939ko abenduaren 11ean)

- Erredaktutako esaldi nagusia
- Norabide gezia
- 'Zoom'-aren laukia eta indikatzailea,
- Zirkulua eta bigarren esaldiarekin batera beste gezi hori ere, eta, azkenik
- Sinadura txikia -'B' bakar hori-.

Pixkanaka, egunkariaren ezutuak garrantzi pixka bat galdu eta berriro beltzeko tintara bueltatu da. Hala ere, elementu honen kolorea ez da inoiz erregularrik izango. Batzutan gorritz, besteetan beltzez agertzeaz gain, bi bertsio ezberdin agertuko dira ere -tamaina handi edo txikiagorentzako espazioa dagoenentz arabera-.

18. irudia. Ezkutuaren eboluzioa



(1939ko azaroaren 26, 27 eta 28an)

3.5. Grafikoen tamainaren txikitzea


Lehenengo bi hilabetetan bere berritasunare erakargarria galdu eta bapatean mapen presentzia eta tamaina txikiagoa bihurtzen da. Urte horretako abenduan zehar map askoren tamaina zutabe batetara jeisten da. Haien artean azpimarratzekoa da, Heligoland irlari dedikatutako esfortzua –zehetasun handiz prestatuta dagoela nabaritzen da– eta tamaina eskasa –modulu bakar bat inguru–. Halako ez proportzio nabaria ez zen aurretik inoiz gertatu.

19. irudia. Lan asko espazio txiki baterako



(1939ko abenduaren 20an)


20. irudia. Grafikoen tamaina ertainaren eboluzioa zentimetro karratutan



(Egileak berak burututa. 2013)

1940ko urtarrilak 2an estatistika infografiko oso bitxia argitaratu zen egunkarian. Konparaketa kuantitatibo honen bitartez Errusiako populazioa Finlandiarenarekin alderatzen da. 'El Correo Español'-en jarrera politikoa Errusiako presioaren kontra agerikoa zen, eta aurriritzi politiko horiek zeuden halako konparazio esajeratuaren oinarrian, grafikoki ez baizuen garapen interesgarri askorik bi zifra horien arteko konparaketa hutsa.

21. irudia. Infografiko estatistiko bitxiak



Errusiako populazioak (180 milioi pertsona) segidan jarriko balira Finlandiako mugako 1.000 kilometroetan zehar, 90 iladako marra burutuko lukete. Finlandiarrek, ordea (3 milioiko populazioa) ezkerreko hilada eta erdi baino pixka bat gutxiago bakarrik. Halako konparaketa kuantitatiboa ez zen oso ohikoa garai hartan eta ez zen berriro egin Benedíren garaian.

(1940eko urtarrilaren 10ean)

Hamarkadaren aldaketarekin egunkariaren itxura grafikoa oso aspergarria izaten jarraitzen da. Deigarria da ikustea nola datu taularik ere ia ez diren agertzen. Aipatu Benedíren mapetaz aparte ia ez dago garapen grafikoko elementuak. Burtsako kotizazioak taula arraro baten bidez publikatzen da baina, bestaldetik, gainontzeko datuek ez dute inolako orden bisualik. Orrialde honetan, adibidez sozietate anonimo baten akzioen zerrenda bat agertzen zaigu. Ikusten denez, zenbakiak bata bestearen atzetik ipintzea baino ez da egin.

22. irudia. Itxura grafiko eskasa gainontzeko orrialdeetan



Sozietate anonimo baten akzioen zerrenda.
(1940eko urtarrilaren 10ean)

Argazkien kopurua ere jeisten da. Mapek bere leku nagusi hori hartuta – batez ere azalorrian–, gero eta fotografia gutxiago argitaratzen joaten da 1939tik 1941ra epean. Grafikoez nagusitzen hasten dira eta honen adibidea dugu orrialde hau, non hiru notizia ezberdinekin mapa txiki bana publikatu zen. Azpimarratzekoa da ez bakarrik mapen ekoizpenaren igoeraren froga bezala, baizik eta bakoitzaren tratamendu informatiboa indibidualagatik ere. Hirurek fokapen eta eskala ezberdina darabilten arren, estilo berberarekin eginda daude. 'El Correo Español'-eko infografikoez berezko nortasuna bereganatzen hasi direla argi dago.


23. irudia. Mapek argazkien lekua hartuta



Hiru grafiko ezberdin orrialde berean. (1940eko martxoaren 6an)

Jarraian ikusi dezakegunez, bere kokapena ere indartsuz joango da. Pixkanaka, gero eta presentzia gehiago izango baitute 'El Correo Español-El Pueblo Vasco'-ren azalorrian, argazkiei bere lekua hartuz.

24. irudia. Azalorrietan publikatutako grafikoak



Argazkiekin konparatuta, portzentaietan.

(*Egileak berak burututa, 2013*)

Gainera, infografiagileak bere lehen ilustrazioak burutzen hasiko da ere. Egunkarian agertu eta bi hilabete eta erdi geroago, bere lehen marrazki alegorikoa argitaratuko du. Bertan komunismoaren aurreratzea isladatzeko zahato militarra erraldoiaren irudia erabili zuen. Hau da, lanean hasi eta hiru hilabete eta erdi pasatu arte gure 'margolaria'-k ez zuen inolako ilustraziorik egin. Eta hemendik aurrera ere burutu egin zituenak beti grafikoetatik urrun geratu ziren, inoiz ez baizuen berriro nahastu bi lan hauek.

25. irudia. Benedí-ren lehen ilustrazioa



(1939ko abenduaren 28an)

3.6. Hobekuntzak mapen eboluzioan

1940ean zehar –lanean hasi eta bost hilabete inguru pasata– Benedík prestatutako mapetan lau hobekuntza mota ezberdin nabarmenduko dira.

3.6.1. Tonalitateen kontraste grafikoaren barruan eta pisu handiagoa orrialdean

1940ko otsailetik aurrera mapek itxura helduagoa agertarazten dute. Benedí bere lanarekin seguruago sentituko balitz bezala, infografikoek kontraste altuagoa aurkezten hasiko dira. Tinta gorria eta beltza era indartsuagoz erabiliko du eta honek aberastuko du grafikoaren presentzia orrialdean, baita une bakoitzean transmititu beharreko mezuaren argitasuna. Ikus dezagun nola, are gehiago, trama beltz ausart batez ere baliotzen hasiko da, adibidez, itsasoak indikatzeko.

Benedíren lana eta presentzia orrialdeetan jadanik ziurtatuta dugu 1939tik aurrera, baina ez da izango 1940 urtearen erdiraino lehen ilustrazio finkoak egiten dituen arte. Oso gutxi burutu zituen arren, batez ere Bigarren Mundu Gerrako pertsonai nagusien karikaturak –Benito Mussolini, Franklin Delano Roosevelt, Adolf Hitler, etab.–, askotan publikatuak izan ziren, behin eta berriz errepikatuta. Garai honetan ere 'El Correo Español'-eko ezkutu hura desagertzen hasten da ere. Urtebete baino gutxiago iraun zuen, beraz.

26. irudia. Mapen itxura homogeneoagoa



(1940eko maiatzaren 2, 4, 9 eta 10ean)


Hala ere, goian aipatu bezala, Benedík ez zuen inoiz ilustratzaille bezala egindako bere lanak infografiagile bezala egindakoeekin nahasi. Lehen momentutik azkeneraino bi produktu horien arteko marra argia zeukala nabaritzen da.

3.6.2. Ura eta luraren arteko ezberdintze bisualaren hobekuntza

Hobetze prozesu horren barruan ere azpimarratzekoa da ura eta lurra ezberdintzerakoan erabilitako irizpidea lehenengo aldiz egunkarian bateratu egiten dela. Zein zuriz eta zein trama batez adierazterakoan, erantzun bakarra eta itxia eman beharrean, irizpide erabakigarria infografikoak kontatzen duen istorioaren mamia izango da. Hau da, indikatu beharreko testuak eta informazio gehiena lurrean dagoenean –adibidez ejerzito baten aurreratzea– berau mantenduko da zuritan, eta ura, ordea, trama batekin. Ordea, istorio nagusia itsasoaren gainean gertatzen denean, ura izango da zikindu gabe geratuko dena aipatu testu horiei leku garbia uzteko. Honen goiko lau adibide horiek ere ditugu, non kontatu beharrekoa lurrean gertatzen da. Ondorioz, izenak, toponimikoak eta destakatu beharreko istorioaren gehien testu gehienak libre uzteko, itxasoa markatu da trama batez.

Beste bi hauetan, ordea, kontatu beharreko istorioa itxasoaren gainean gertatzen da, beraz, kasu honetan horixe da zuritan geratu den aldea. Lurra, ordea, trama horretaz mantxatu du.

27. irudia. Uraren ezberdintze koherentea



Elementu informatiboak uraren gainean nagusitzen direnean, kontinentea trama batez ilunduko du 'Benedí'-k. (1939ko azaroaren 9 eta 10ean)

3.6.3. Orrialdearen kokapena eta gainontzeko elementuekiko muntai zainduagoa

Orrialdearen diseinua eta gainontzeko elementuekiko integrazioa zainduagoa izaten hasiko da. Hasteko; erredaktoreak izen propioa ipintzen diote atalari; 'Perfil de la jornada' titulupean. Horrek finkotasuna ematen dio egunero artikuluari eta, aldi berean, maparen presentziari. Bigarren aurrera pausua mapa berezien formatu bertikal esajeratuan aurkitzen dugu. Hor ikusten dugu argi eta garbi infografiagilearen iritzia kontsultatzen zela mapen tamaina erabakitzerakoan. Baina, are gehiago, 1940an lehenengo aldiz infografikoek forma errektangularra atzera utzi eta molde irregularraren lehenengo adibideak agertzen hasten dira. Hurrengo hiru urtetan zehar dozena bat aldiz inguru baino ez zen hau gertatu. Hala ere, oso deigarria suertatzen da ez bakarrik berrikuntza izateagatik, garai hartan zutabeak honela partitzeko zegoen zailtasuna zela eta hau ez zela normalean honela egiten, adibidez, argazkiekin. Beraz, infografiagilea eta tailerreko muntatzaileen arteko etengabeko erlazio estuaren froga dugu. Hauexek ditugu, besteak beste, hurrengo adibide honetan:

28. irudia. Orrialdeen diseinuarekin koordinatzea



(1940eko azaroaren 14ean)

Formato irregularra hau ikusita pentsa genezakeen Benedík grafikoaren forma arraroa prestatu duela zutabeen ertza ekiditzeko eta honi moldatuz egin behar izan duela mapa. Baina gehiago fijatzen bagara, azkar konturatu gaitzke nola aldrebes gertatu den: Japon, Txina eta Tailandia indikatu beharreko mapa, espaziorik txikiena halaxekoa izan behar zuen derrigorrez, beraz, zutabeak grafikoari moldatu egin dira. Infografiagile eta muntaigileen arteko koordinazio adibide garbia dugu hau.

Beste batzutan, ordea, mapa ez da moldatu behar izan, baizik eta espazioa irabazi nahian, infografiagileak zentimetro batzuk nondik aurreztu zezakeen esan die muntaigileei –itxasoaren alde–, eta berauek izkina hori aprobetxatu ahal izan dute grafikoaren esplikazioa sartzeko

3.6.4. Tinta gorriaren erabileraren egonkortasuna

Azkenik, kolore gorriaren erabilera orekatu eta egonkorragoa lortu zuen. Nahiz eta mapa bakoitza istorio ezberdina kontatu eta beraz erabilitako elementu grafikoak aldatu ere, joera nabarmena hedatuz joango da; kolore gorria Alemaniaren aurrerakadak isladatzeko. Gune 'beroak' bezala trama gorri batez ezberdintzen hasiko da lurra non naziek inbaditu egin duten edota kasu bakoitzean herrialde erasotzaileak okupatu duen area. 1940tik aurrera kolore gorria gehienetan era honetan erabiliko da azalorrietan. Aldi berean, lehen baino titular gutxiagoren testuan, beraz, mapen kontrastea eta presentzia igotzen da azalorrietan.

Nahiz eta egonkortasun osoaz ezin hitz egin, bai kontsideratu daiteke urte honetatik aurrera plantxa gorriak eskusiboki erabiltzen hasten dela hiru elementutan:

- Titular nagusiaren letretan edota apainduretan
- Orrialdearen goikaldean, igandetako egunaren zenbakirako
- Infografikoaren zonalde destakatuan

Mapen luxuzko kokapen horrek –gehienetan azalorrian agertzeagatik– permitituko dio gorri kolorearen erabilera Benedíri. Hori dela eta, esan dezakegu mapek izan zirela kolorearen erabilera gehien jorratu eta berri zuten elementuak.

Kontutan hartu behar dugu gorriaz inprimatu beharreko zonaldeak aparteko plantxa baterako prestatuak izan behar zirela. Hori dela eta, oso ondo pentsatuak eta, kontu handiz montatuta, bestela, abuztuak 22eko mapa batean gertatu zen bezala, inprimatzerakoan mugitu egin bazitzaion infografiko osoaren itxura zein zentzua galdu egin zuen.

3.7. Errepikatzea ekidin saiatzen etengabe

Lan bakoitzari tratamendu berezia eta bere esfortzua dedikatu ziola argi uzten zuen egunero. Adibidez, lau egun jarraian –maiatzaren 11 (bi), 12, 14 eta 15ean– Belgika eta Holandako zonalde beraren inguruko bost mapa –bi lehenengo egunean eta bana beste hiruretan– prestatu behar izan zuen eta ikusten denez, bakoitza zerotik hasita marraztu egin zituen, berrerabili egin beharrean.


29. irudia. Gai bera baina lan ezberdinuak



(1940eko maiatzaren 11, 12, 14 eta 15ean)

Eraberean, estilo ezberdineko grafiko anitz marrazteko kapaza zela argi utzi zigun. Honako adibide hauek estilo batuko gainontzeko mapa arruntetatik urruntzen dira, eta, berriro, inoiz ez ikonoak, marrazkiak edota dekorazioko elementu hutsik erabiltzen.

30. irudia. Estiloak esploratzen



'Perfil de la jornada' titulupean egunero bataila baten eboluzioaren berri ematen zen. (1941eko urtarrilaren 14 eta 20an)

Agian artea edota pinturaren munduak eraginda, 1940ko abuztuan bere sinadurarekin batera data ere agertarazten hasiko da. 'Benedí 8-8-40' irakurri dezakegu egun horretan, hala ere esperimtoa astebete baino ez zuen iraun.

Berrikuntza bere griña horren froga dugu jarraian, urte bereko abuztuan Ingalaterraren kontrako inbasioa prestatzen ari dela. Informazio horien inguruko mapa gehienak itsasoa zuten abiapuntua eta kasu horretan, urari egozten hasi zitzaion gorri kolorea.

31. irudia. Errekurtso grafikoak aprobetxatzen



Erresuma Batuen kontrako erasoak tinta zuriz erabiltzen kolore beltzaren gainean eta kontinenteko lurra, berriz, gorritz orijinalen). (1940eko abuztuak 19an)

Garai hartan oso normala zen ere herrialde baten tamaina erlatiboa erakusteko beste herrialde baten barruan marraztea. Berrito kokatzaile orokorren falta nabaritzen da. Urteak pasata eta zoom horiek oso gutxitan erabili zituen Benedík. Are gehiago, 1942an, Gerraren nukleo nagusia Ozeano Pazifikora pasatzen denan eta Asiako hainbat infografiko publikatu zirenean.


Benedík bere kaligrafia estilizatu du ere. Gainera, grafikoek itxura argiago hartzen hasten dira. Tinta gutxiago erabiliz eta, beraz, orrialdea gutxiago mantxatuz ere.

1943an zehar Bigarren Mundu Gerrak bukatzeaz dago eta gero eta mapa gutxiago publikatzen hasten dira. Hurrengo urtean, 1944ean zehar, infografikoen kopuruak jeisten jarraitzen du. Hurrengo urteetan ia desagertu arte. Bigarren Mundu Gerran zehar inoiz baino infografiko gehienak eginda zituen profesionalak, agertu bezala desagertzen da, eta berarekin batera mapen presentzia egunkariaren orrialdeetan.

3.8. 'Benedí'-ren osteko hutsune garbia

1945etik 1950 arte zehar oso grafiko gutxi publikatu zituen 'El Correo'-k. Benedíren agurra mapen behin behineko desagertzea suposatu zuen. Nohizbehinkako zenbait mapa solte ikusten dira ere, baina inolako homogeneitatekerik gabe, ezta sinatuta ere. Ez nazioarteko berriekin ezta tokiz tokiko informazioekin, inork ez dirudi kapaza marrazkiak egiteko egunkarian. Humorezko binearik ere ia ez ditugu aurkitzen eta elementu grafiko bakarria argazkia izaten jarraituko da. Berez, Benedíren garaian infografikoen ekoizpen handieneko urtea eman zen, 1940, hain zuzen, non hilabetero batzbesteko 33 grafiko inguru publikatu ziren. Halakorik ez zen gertatu inoiz egunkariaren historian infografiagile bezala pertsona bakar egonda. Gero ekoizpen hori pixka bat jeitsi zen 1945tik aurrera, Benedí alde eginda, ia desagertu arte. Hurrengo grafiko honek lau hamarkadetan zehar argitaratutako infografikoen kopuru ertaina adierazten du. Estatistikan ez dira konputatu egunkaritik kanpo ekoiztutako grafikoak; adibidez, beste komunikabideek publikatu eta 'El Correo'-k erreproduzitu, edota 1950. hamarkadan 'Índices Correspa' titulupean Burtsako informazioak laburbiltzen zituena, hau ere kanpoko enpresa batetatik heltzen baizitzaion egunkari bilbotarrari. Hala ere, 1945etik 1949ra arte grisez indikatutako 'Ilustratzailek gabeko urte'-en kasuan bai konputatua izan da edozein mapatxo edota estatistika zein diagrama -nahiz eta egunkariak berak ez ekoiztu-.

32. irudia. 'El Correo'-k publikatutako infografikoen eboluzioa



Hilabetero informazioko artikuluetan argitaratutako infografikoen kopuru ertaina 1940tik 1980ra
(Egileak berak burututa. 2013)

4. ONDORIOAK

'El Correo'-ren historia osoan zehar inoz ez zen gertatu horren lotuta ego-
tea grafikoen presentzia eta kantitatea pertsona zehatz baten lanarekin. Hemen
dugu lehen adibide garbia adierazteko zein garrantzitsua den marrazkigilearen
presentzia komunikabide batean. Bere garapen grafikoa, egunkariarena izan
zen. Berak jarraitutako eboluzioak, egindako saiakerak eta asmatutako espe-
rimentuak Bilboko irakurleagoak kontsumitutako informazio grafiko nagusia izan
ziren ia bost urtez. Benedí edozein arrazoirengatik lan egin ezin izaten zue-
nean; oporrak, gaixotasunak, etab. Beste inork ezin zuen bere lekua bete, argi
eta garbi ikusten denez berak utzitako utsuneengatik zenbait egun edota aste
jarraian huts egiten zuenean. Arrazoi guzti hauengatik, Bilboko egunkari hone-
tako lehen infografiagile osoa kontsideratu behar dugu Benedí.

Bere desagerpenarekin, egunkariak infografikoak argitaratzeari ia utzi zion
hamar urte geroago, 1955ean, Ammann arkitekto bilbotarrak grafikoa sinatzen
hasi zen arte. Beregan dependentzia osoa zeukan 'El Correo Español - El
Pueblo Vasco'-k.

Lehen Mundu Gerran zehar gertatua zen bezala, 1939tik 1944ra arteko
Bigarren Gerra Handiak ere eragin izugarria izan zuen egunkariak publikatu
beharreko infografiko mota eta kantitatean. Mende erdi geroago adituek
1991eko Golkoko Gerrak suposatu zuen bultzakada berbera azpimarratzen
dutelarik, 'Benedí'-ren lanak gure ingurune hurbileko prentsan izan zuen
antzeko eragina.

5. BIBLIOGRAFIA

- ABREO SOJO, Carlos. *La infografía periodística*. Caracas: Fondo Editorial de
Humanidades y Educación. Universidad Central de Venezuela, 2000.
- BARNHURST, Kevin G. *Handbook for Visual Journalism*. Champaign (Illinois); Hawthorne
Books, 1990.
- CAIRO, Alberto. *Cómo la infografía interactiva cambió nuestras vidas*, in Malofiej 11:
Premios internacionales de infografía. Pamplona: SND-E/Index Book, 2004.
- DE PABLOS COELLO, Pablo. *Infoperiodismo: El periodista como creador de infografía*,
Madrid: Síntesis, 1999.
- DIAZ NOCI, Javier. *La escritura digital*. Leioa; Universidad del País Vasco / Euskal Herriko
Unibertsitatea, 2001.
- GARCÍA, Mario. *Tendencias en comunicación periodística visual*, in Revista Latina de
Comunicación Social, 3, 1998.
- LETURIA, Elio. *¿Qué es infografía?*, in Revista Latina de Comunicación Social. 4. zb.
1998ko apirila.
- SERRA, Josep María. *La irrupción del infografismo en España*, in Revista Latina de
Comunicación Social, 11, 1998.

García González, Daniel: 'Benedí', *El Correo* egunkariko lehen infografiagilea

STARK, Peggie. *Lecturas para redactores escépticos sobre qué diablos sea eso de la infografía*. 'Society of Newspaper Design'-eko Espainiako Ataleko dokumentazio infografikoa. Iruñea; Nafarroako Unibertsitatea, 1991.

SULLIVAN, Peter. *Newspaper Graphics*. Darmstadt (Alemania): IFRA Publications Department, 1987.

VALERO SANCHO, José Luis. *La infografía de prensa*, in *Revista Latina de Comunicación Social*, 30. zb. 2000

———. *El ataque y la respuesta*, in *Revista Latina de Comunicación Social*, 48, 2002.